



OLPak INGURUMENAREKIKO

DUEN KONPROMISOA



OLP-ak gure **Eginkizunean...**

*“Ingurumenarekiko jarrera hobetzeko konpromisoa” hartzen dugu eta gure **Balioen** artean “Errespetua pertsona, ingurumena, instalakuntza eta bitarteko orori, tentsio eta gatazkak elkarrizketa bidez eta indarkeriarik gabe konpontzeko jarrera azaltzea” dugu.*

INGURUMEN ALDERDI ADIERAZGARRIAK:

- Ingurumen kudeaketak gure kudeaketa bateratuan duen garrantzia kontutan hartuta, ikasle eta langileen asebetetzea areagotzeko egiten diren ekintzak eta bere hedapena helburu estrategiko bihurtu dugu:
 - Lehengaien kontsumoaren murrizketa bultzatuz (ura, fotokopiak, elektrizitatea, tailerreko lehengaiak..).
 - Hondakinen kudeaketa hobetuz.
 - Oteitzako pertsonen mugikortasunaren (ikastolara iristeko) azterketa bideratuz.
 - Kurtsoan zehar ikasleekin ekintza ezberdinak gauzatuz.
 - Ikasgaietan ingurumenaren inguruko gaiak landuz.

IKASTURTEKO HELBURUAK LORTZEKO EKINTZAK:

- Agenda 2030 talde gidariaren barruan ingurumen taldea antolatu.
- Solairu bakoitzeko pasilloetan, zabor desberdinak bildu eta bereizteko txokoak aurkeztu.
- Lizeoko auzokideekin (Donibane plaza, Gaztelekua, jabego pribatuak..) ditugun harremanak zaindu, beren inguruak errespetatuz. Horretarako egunero ikastetxe ingurua garbi eta txukun mantentzeko garbiketa lanak egingo dira.
- Ikasturte honetan Eskola Agenda 2030ean garatu beharreko gaia azaldu eta ingurumen taldean parte hartzeko gonbidapena luzatu.
- EA 2030eko gaia: Batxilergoan “EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA” (12. GJH)” izango da abian jarriko den Garapen Jasangarrirako Helburua (GJH).
- Ikastetxean ingurumenari lotutako ekintza /egun ezberdinak antolatu.
- Ikastetxean egiten diren ekintzetan ingurumena kontuan izateko hainbat irizpide ezarri.

Ingurumen taldeko KIDEEN BETEBEHARRAK:

- EA 2030eko gaia landu: Batxilergoan “EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA (12. GJH)” izango da abian jarriko den Garapen Jasangarrirako Helburua (GJH). Arazoen aurrean, aztertu eta denen artean hobetzen joateko irtenbideak aurkituko dituzte.
- Komunikazio taldearekin kolaboratuz ingurumenaren gaiko komunikazioak bideratu.
- Ingurumen gaiaren inguruan sortutako ekintzak bultzatu.

INGURUMEN JARDUNBIDEAK:

Ingurumen jardunbide egoki eta energia kontsumoa murrizteko jarraitu beharreko ekintza txiki batzuk adierazi nahi dizkizuegu.

Kontsumoa murriztu:

- Alferrikako hondakinak sorrarazten dituen edozer saihestu.
- Energia: makinak ez alferrik martxan eduki. Berogailuak piztuta daudenan leiho eta atea ez alferrik irekita mantendu.
- Ura: ez galdu alferrik eta ez erabili komunak paperontzi gisa.
- Papera: ordenagailuak erabili dokumentuak irakurtzeko eta eskanerra erabili paperezko fotokopiak egin beharrean. Ahal den neurrian, dokumentazioa formatu digitalean artxibatu.
- Mekanika eta elektrika tailerretan erabilitako lehengaien kontsumoa murriztu. (kableak, altzairua, aluminioa, etab.)

INGURUMEN JARDUNBIDEAK:

Berrerabili:

- Objektuak eta materialak ahalik eta gehien erabili, baztertu, suntsitu edo tratatzera bidali aurretik. Geletan erabilitako papera pilatu eta berrerabiltzeko kaxak jarriko dira.

Birziklatu:

- Materialak behar bezala sailkatuta utzi, produktu bera edo beste bat lortzeko baliabide material gutxiago erabiltzen duen prozesu natural edo industrial baten bidez berrerabiliak izan daitezten. Pasiloetan hondakin mota desberdinak jasotzeko ontziak izango dituzue.

Isurketak:

- Zarataren sorrera murriztu, sortu aurretik komunikatuz, bere eragina ahal den neurrian ekidin ahal izateko.
- Oteitzako kideen mugikortasun jasangarriago bat bultzatu behar dugu.



INGURUMENA ZAINDU DEZAGUN!